

MAITEXAREN EZKONTZA

Agertuko dira:

MARTINA: Maitexaren ama.

DOMINIKA: Maitexaren izeba.

MARIENA: auzoa.

KATTINA.

MAITEXA.

JUANAÑO.

Dominika josten ari da sukoldean; borta joiten dute.

DOMINIKA: Nor da hor? To zu zinena Mariena? Zoin untsa egin duzun jitea; Bakar bakarrik naiz. Martina Aosteiko Kattalinon ikusterat joana eta Maitexa belarretan ari Manexekin.

MARIENA: Ba, badakit eta hartako heldu niz zurekin solasean artzerat; Nola zarezte "Erreka Xolan"?

DOMINIKA: Untsa, arras untsa Jainko maiteari esker; jar zaite eta zuek Etxartean?

MARIENA: Gu ere ez gira gaizki... Kadet beti arrangura bera errematismo tzar horietarik, bainan ez da handi zerbait jauzirik ere, Gizagaizoa!!! Badu bere denboran lan onik eginik; bauak egun eginak ari izan da bere zortzi haurren hazteko; ez baitzen ba lehen, sosa orai bezala pupilka!

DOMINIKA: Egia duzu zer kanbioa!... eta zuk ere Mariena baduzu ba zerbait ikusirik...

MARIENA: Egiaren erraiteko ez nintzan ez bethi Eliza phestan.

DOMINIKA: Bainan ikusiak ikusi, orai ontsa zirezte?

MARIENA: Orai ba... egia da Jainkoak benedikatzen dituela familia handiak. Azkenean oro arras ontsa itzuli zauku.

DOMINIKA: Ba... ba... Beñat aphez eta Gaxuxa serora, hor berean zer atsegina.

MARIENA: Bertze lau ezkonduak etxe onetarat eta [...]. Maiena xaharrena etxean gure tratatzeko eto gaztena Battitta...

DOMINIKA: Hura ere orai ezkont adinean.

MARIENA: Ba, eta ez dut urrikari izanen hura hartuko duena; mutiko bihotz handikoa da, langilea eto zuhurra; dena bere aita.

DOMINIKA: Egungo egunean guti den bezalakorik... Ez othe du nehor begistaturik?

MARIENA: Begistatzea aski balitz! Bainan harek begiz joak nahi lukea?

DOMINIKA: Nola ez?... Iduritzen zaut hauta balukela.

MARIENA: Hola denaz geroz, behar dauzut zerbait erran.

DOMINIKA: Errazu, errazu gostuan...

MARIENA: Badakizua nortaz agradatua den? Zuen Maitexaz...

DOMINIKA: Baia?... Ez laitezke gaizki elgarrekin...

MARIENA: Bainan Maitexak nahi lukea?...

DOMINIKA: Nik uste ba... harrek ere arras gostukoa du Battitta.

MARIENA: Hobe segur... Battitta ez zen menturatzen deuseren erakusterat emaita... zeren Maitexa anderexkoa baitzako harentzat.

DOMINIKA: Anderexkoa?... Pinpirin aire bat izana gatik, arras langilea da eta laborantzan gustu.

MARIENA: Eta famen arabera uste zuen jaun bat hartuko zuela.

DOMINIKA: Jaun bat? Zer luke jaun batek Battitta baino gehiago bertze... Behin hain bertze.

MARIENA: Ah ba! Emazte alfer bat din jostatzea baizik ez duena gogoan.

DOMINIKA: Bertze hoi ere batere ez zakigun nolakoa den; badakin erran zaharra: «Urruneko eltzea urhez, gu harat orduko lurrez».

MARIENA: Zoin gibel beldurra hizen.

DOMINIKA: Aldiz Battittarekin ez giniken deuseren beldurrik; mutiko ezagutua dun, baliosa eta duna. Egina ditine partimen guziak eta etxea beretako din. Begien bixtan den iguzkiko ontasun ederra. Ez dun holakorik!

MARIENA: Utzan Battitta bere gisa; Maitexak hirian bertze bizi liken...

DOMINIKA: Zer? Hire haur bakarra etxetik kanpo?... Roxalik ezarri hau naski undarra mentsturik.

MARIENA: Ez batere! Andere litaken, bethi aphaindua, usin on bat hedatuz eta lan guti edo baterez; aldiz zoko huntan ari behar liken beti lurrarekin borroka.

DOMINIKA: Lurrak emaiten din berea? honen bazterrak zabal haurren hazteko, iguzkia nasai, airea garbi eta bizitza pausukoa... Hirian, tokia hettxi bazterra xuko, burua hartua bizi beharrarekin, bethi lasterka tenorea bera iguzkiari aintzinka...

MARIENA: Hiritarrek oro hobeki on hartzen ditine... izpiritua ez dine hemen bezain hertsia... Gilen zenak ere, ez deuseria batzu ez zaitanan onhartzen.

DOMINIKA: Gilen! Hiri eman zen baino senhar hobea zunan. Kasik estakururik gabeko gizona.

MARIENA: Ez dinat erraiten... Bainan Maitexa sortu zenean erran nionean: «Haurño huni eman bagineza izentzat Gizeia?». Ihardetsi zaudanan: «Zer Xixela? Baduzua burrutik?». —Batere, oraiko izenatarik da... —«Zaude ixilik emaztekoa, Xixela? Zertako ez trukea edo mailua?». Gizon ttontoa, nahi zakonan eman izentzat Geexene bere ama zenaren orhoitzapenetan... Azkenean ariaren bortxan ardietsi ninan Matexa.

DOMINIKA: Untsa izen goxoa...

MARIENA: Bertze aldi bat ere ikusi ninan [...] emazteari biziki soineko pollita: Zeta kukoso kolore... Untsa nahiko ninan holako bat... Orduan ere, zeta ez zela enetzat gisa... eta zenbat holako!!!

DOMINIKA: Horiek gauza biziki ttipiak ditun...

MARIENA: Hiritar batek denak onhartuko zitinan!

DOMINIKA: Eta bertze handiagoko ainitz jasanaraziko...

MARIENA: Ez din balio mokoka ar gaiten; Maitexak eginen din berak bere hautua.

DOMINIKA: Ez zazkonala Roxaliren ele buztan horiek aipha.

MARIENA: Ez dinat erraiterik... Denak bazazkin: ari omen ditun egun guziez elgarrekin solasean.

DOMINIKA: Ez zaukun ba deuserik erran; dudarik gabe ez zakon balio; ez baitu gauza hori hik bezain barna hartu.

MARIENA: Edo aiphatzeko beha zagon ezkontza finkatu arte!

DOMINIKA: Gure haur hori mireila bezain klara dun. Segidarik eman hahi ukan balu aiphatuko zaukunan eta gure argiak galdeginen.

MARIENA: No, horra nun helduden berehala jakinen diun.

DOMINIKA, MARTINA, MAITEXA

MAITEXA: (*heldu da kantuz*) «Nola han bainaiz sortua han utziko dut mundua galtzen ez badut zentzua!»

DOMINIKA: Sor lekuan, utz mundua ez dun holakorik.

[4, 5 eta 6 orrialdeak ez dira ongi irakurtzen]

JUANAÑO: Ba, gure nagusiari erran diote: Duela zombait egun jin ziren Parisetik jende batzu Urtxo-Xurirat. Ikusi zuten horren erhaztun ederra eta ohartu ziren heiek behartzearekin gordezera bezala egin zuela. Bertzalde bera ere bereala bixtatik joan zen. Baitzakiten ohointza handi bat egina zela urheria etxe batean, behartzen lekuan mintzatu dire eta hortarik...

MARTINA: Ez zaut gogorat jin holakorik izan zitakela ere. Iduritzen zaut aments tzar batean nizela.

DOMINIKA: Ni, ez nun batere harritzen. Ez dun sekulan fidatzeko arrotz horieri.

MARTINA: Ez ditun ez denak holakoak.

DOMINIKA: Beharrik! Bainan gisako hekiek hatxemaiten ditine bere ingurietan berak iduriak gut'artekoen ondotik jin gabe.

MAITEXA: Bertzenaz ere aise kurritzeko izariko zapeta behar da.

JUANAÑO: Egia duzu haurra: Ttipieiak min egiten du eta handieiak akitzen.

MARTINA: Harritua eta laztur niz ikusiz ene alaba nori eman nahi nuen.

DOMINIKA: Erakaspén hunek emanen ahal daun zentzu poxi bat... Hemendik harat denek ikus ditzagun gauzak diren bezala eta ez bakotxak gure ametsen arabera.

MARTINA: Ah, ah! Ez errebelatzeko egonen gitun bethi tintinka estekatua, Jainkoari, lurrari eta gure ohidura guzieren.

MAITEXA: Hitz batez izanen gira osoki ESKUALDUN

DENEK: (*kantuz*) BIBA ESKUAL-HERRIA! BIBA ESKUALDUNAK!

MARTINA: ETA BIBA BATTITTA!